

GRADUAMAIERAKOLANAREN GIDA

Gizarte Hezkuntzako Gradua


2024-25

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA UPV / EHU



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA

FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA



■ 1. GRADU AMIERAKO LANAREN (GRAL) XEDEA ETA HELBURUAK

1. Gradu amaierako lana (GRAL) gauzatzeko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan graduko ikasketa aldiaren burututako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira (ikus GRALaren EHU/UPVko Araudia, BOE 2012 ekainaren 19 <https://www.ehu.eus/documents/4998110/6865414/1501652e.pdf>). Graduko azken mailako irakasgaia da, 12 ECTS kreditukoa.
2. GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatzeko eta interpretatzeko trebatzeari begira ere, ikasleak hezkuntzari, gizarteari, zientziari, teknologiarri edo etikari loturiko gai nabarmenei –normalean, bere ikasketa gaiei lotutakoei- buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen.
3. GRALa defendatu eta ebaluatzeko, ikasleak gaitasunak izan beharko ditu ikasketa planeko gainerako gai guztiak eta, hortaz, GRALari dagozkion kredituak kenduta, graduko titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak eduki beharko ditu.
4. Lana egin, aurkeztu eta defendatzerakoan, graduko irakaskuntzan erabili izan diren hizkuntzetako edozeinetan erabiliko ahal da.
5. Irakasgai hau eginik, ikasleek eskuratuko dituzte goi hezkuntzarako kualifikazioen espainiar markoan agerturiko gaitasunak, titulazioaren gaitasun orokorrak eta GRALeko gaitasun espezifikoak.
6. GRALaren bidez, ikasleek, Gizarte Hezkuntzako titulazioko gaitasunak eta GRALeko gaitasun espezifikoak landuko dituzte:

Gizarte Hezkuntza Graduko gaitasunak:

- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen eta bere lan-esparruen oinarri teorikoak (psikologikoak, soziologikoak eta pedagogikoak) ezagutzea eta ulertzea, eta, baita, prozesu horien oinarrian dauden legeak eta gizarteko, kulturako eta hezkuntzako politikak ere.
- Hautemandako premiei erantzuteko gizarte eta hezkuntzako programak, proiektuak eta planak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, arreta berezia eskainiz arriskuko eta/edo bazterkeriako egoeran dauden taldeei eta profesionalen laguntza eta trebakuntzako premiei.
- Hezkuntza-harremanak eta gizarte-sareak ezartzeko aukera emango duten testuinguruak sortzea, pertsonaren, taldearen eta komunitatearen garapena sustatuz.
- Taldeak, baliabideak, zerbitzuak eta erakundeak dinamizatzea, antolatzea eta kudeatzea, hautemandako arazoak eta zail- tasunak konpontzeko estrategia eta teknika egokienak sortuz eta erabiliz.
- Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea garatzea, etikaren eta lanbidearen deontologiarekiko errespetuaren ikuspegitik.
- Gizarte-errealitatea eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartze inguruak analizatzea eta ebaluatzea, laneko gaiei buruzko hausnarketetan oinarrituko diren iritzia eman ahal izateko.
- Gizarte eta hezkuntzako jarduerari lotutako ikerkuntza eta berrikuntzako prozesuak diseinatzea eta garatzea, gizarte eta hezkuntzako arazoak konpontzeari begira.
- Gizarte eta hezkuntzako gaiei buruzko ideiak, argudioak, arazoak eta konponbideak ahoz adierazteko gai izatea, askota- riko entzuleen aurrean.
- Laneko dokumentuak idazteko gai izatea, hainbat testuingururi buruzkoak eta askotariko irakurleei egokituak.
- Etengabeko prestakuntzarako jarrera ona izatea, gizarte eta hezkuntzako eskuhartzean eta laneko garapenean hobetzen laguntzeko

GRALeko gaitasun espezifikoak:

- Gizartearen eta hezkuntzaren errealitatea aztertu eta interpretatu, eta era berean banakoen, erakundeen eta lanbidearen bestelako arloen beharrak identifikatu, gizarte eta hezkuntza mailako ekintzak oinarritzeko.
- Jarduteko proiektu berritzaileak diseinatu hainbat esparrutan eta Gizarte Hezkuntzaren arloko gai garrantzitsuetan aplikatu, koordinatu, balioetsi eta sakontzeko erabili.
- Norberak bere GRALaren inguruan hausnartu, argudiatu eta defendatu.
- Ikuspegi, metodologia eta ikerkuntza, ekintza eta hobekuntza teknika desberdinak erabili Gizarte Hezkuntzaren esparruetan.

■ 2. IZEN EMATEA ETA DEIALDIAK.

1. Gradu amaierako lanerako matrikula unibertsitateak horretarako ezarriko lukeen matrikula egiteko epe orokorraren barruan eginen da edo unean uneko ikasturte akademikoan zehar eta behin ikasleak gradu amaierako lanaren defentsa egin ahal izateko betebeharrak bete eta gero.
2. Matrikulak bi deialdi ofizialetarako eskubidea emango du ikasturte bakoitzean. Ezarritako bi deialdietan lana defendatu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.
3. Ikasleek GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute.
4. Ikasleek GRALak gestionatzeko programa informatikora sartu ahal izango dute honako baldintza bi hauek betetzen badituzte:
 - a) Graduak lehenengo mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako 168 kreditu gaindituta izatea gutxienez, eta
 - b) Gradua bukatzeko beharrezkoak diren irakasgai guztietan matrikulatuta egotea.
5. Ikastegiak, aldezturik, GRALerako proposatutako arloak edo gaiak argitaratu emango ditu. Ikasleek beren interesekoak diren gaiak aukeratu beharko dituzte, hogeituztira.

■ 3. GAIK ETA ZUZENDARIAK AUKERATZEKO PROZEDURAK

1. GRALari esker, ikasleak modu integratuan erakutsiko ditu Gizarte Hezkuntzako graduaren tituluarri loturiko gaitasunak. Horretarako, lagungarriak izango dira PRACTICUMean egindako lana eta, karreraren zehar izandako DILAN ezberdinak.
2. GRALa egiteko mota ezberdinak planteatzen dira, ikasleen aukeran:
 - a. Titulazioan sartuta dauden sailek urtero eskaintzen dituzten gaietako batetik abiatuta egindako sakontze lana. Honetarako, akademi ikasturte bakoitza amaitu baino lehen, graduaren jarraipenerako batzordeak onartu eta argitaratu emango du, sailek proposatutako gai eremuen zerrenda.
 - b. Dekanotzaren, erakundearen edo enpresek proposatutako gai edo proiektuak.
3. Ikasturte hasieran, ikastegiak deialdi bat argitaratuko du GRALak gestionatzeko programa informatikora sartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleek 10 egun balioduneko epean hogeituztira lan aukera ditzaten, lehentasunaren arabera ordenatuta. Ondoren, ikastegiak esleipenen behin-behineko zerrenda argitaratuko du. Hauek graduak 3. ikasturterako arteko espediente akademikoaren arabera ordenatuko dira.

4. Esleipenen zerrenda argitaratzen denetik aurrera, 3 egun balioduneko epea egongo da zerrendari alegazioak egiteko edo deialdi horretan GRAL bat eskatzeko aukerari uko egiteko. Ondoren, 5 egun balioduneko epean, ikastegiak GRALen esleipenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.
5. Esleipena Gizarte Hezkuntzako gradu amaierako lanen batzordeak gainbegiratu du.

■ 4. LANAREN EGITURA ETA LANA IDAZTEKO ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

4.1. GRAL mota ezberdinak aurreikus daitezke, besteak beste: ikerketa ereduari jarraitzen dion lana; esku-hartze proposamena; hezkuntza material/baliabideen edo prototipo/proiektuen diseinua; gizarte hezkuntzari loturiko gai baten azterketa teorikoa... Adibide modura, mota horietako biren egitura posibleak zehazten dira behean:

A Eskema: ikerketaren egitura klasikoa jarraituz gero:

1. Laburpena (gehienera 100 hitz) eta, gehienez, 5 deskriptore, lanaren indexazioa egin ahal izateko (deskriptoreak hezkuntzako thesaurus batetik aterako dira).
2. Aurkibidea.
3. Sarrera (lanaren motibazioa, justifikazioa, helburu orokorrak...)
4. Oinarri teorikoa
5. Metodologia
6. Emaitzak
7. Ondorioak (eztabaida, auto-hausnarketa, gomendioak, hobetzeko proposamenak, esku hartzeko ildoak..).
8. Erreferentzia bibliografikoak, arau estandarizatuen arabera (APA formatua)
9. Eranskinak.

B Eskema: errealitatean antzemaniko beharretara erantzuteko egindako proiektua, eskuhartzea edo proposamena eginez gero:

1. Laburpena (gehienera 100 hitz) eta, gehienez, 5 deskriptore, lanaren indexazioa egin ahal izateko (deskriptoreak hezkuntzako thesaurus batetik aterako dira).
2. Aurkibidea
3. Sarrera (lanaren motibazioa, justifikazioa, helburuak)
4. Garapena. Lana egiteko eraman den prozesua. Oinarritze teoriko-akademikoa. Proiektua, esku-hartzea edota sortutako baliabidea kokatzen deneko testuinguruaren deskribapena. Proposamenaren diseinu-zehaztapenak. Aurrera eramateko/aplikatzeko aukera izan denean, kanpo-kontrastearen, aplikazioaren edota martxan jartzearen ebaluazioaren prozesua eta emaitzak
5. Ondorioak, helburuekin bat eginez, garatutako prozesua eta lortutako emaitzen aipamenak eginez. Baita proiektuak etorkizunean izan dezakeen bilakaera eta egokitzapenaren inguruko gogoeta ere.
6. Erreferentzia bibliografikoak, arau estandarizatuen arabera (APA, ikusi esteka beheago)
7. Eranskinak

(C) Ikaskuntza Zerbitzua (A-Z) solidarioaren planteamendua:

1. Laburpena (gehienez 100 hitz) eta gehienez 5 deskribatzaile, lana indexatzeko (deskribatzaileak tesauro hezitzaile batetik aterako dira).
2. Aurkibidea
3. Sarrera (lanaren motibazioa, justifikazioa, helburuak)
4. Oinarri teoriko-akademikoak
5. Garapena: Zerbitzua kokatzen den testuinguruaren deskribapena, diseinua, martxan jartzea, emaitzak, ebaluazioa eta ospakizuna. Zerbitzuak parte-hartzaileengan duen eraginari eta zerbitzua egin duten ikasleengan duen eraginari buruzko hausnarketa
6. Ondorioak, helburuekin koherentzian, garatutako prozesuari eta lortutako emaitzei erreferentzia eginez.
7. Erreferentzia bibliografikoak arau estandarizatuen arabera (APA, ikus esteka beheago)
8. Eranskinak

Jarraibide hauek erabiliko dira GRALa idatzizkoa denean. GRALak beste ikuspegi bat edo formatu bat baldin badu (sortzaileagoak, bisualagoak -blog, bideo, komiki...-) jarraibideak moldatu egingo dira.

4.2. GRALa 30 (10.000 hitz) eta 50 orri (18.000 hitz) bitartekoa izango da gutxi gorabehera, bibliografia kontutan hartu gabe.

4.3. Alderdi formalak zaindu egin beharko dira. Edukia egokiro eta logikoki antolatuta egongo da; hautatutako gaiaren alderdi guztiei helduko zaie; idazkera zuzena izango da, bai gramatikari dagokionez, bai semantikari dagokionez; edukiak argiro adieraziko dira, eta ideien arteko lotura ondo islatuta geratuko da. Horrez gain, lana egiteko erabili den bibliografia jaso beharko da.

4.4. Lan idatziaren aurkezpenak ezaugarri hauek beharko ditu:

a) DIN A4 orritan idatziko da, Times Roman 12 letra tipo arruntaz.

b) Azalean honako hauek jasoko ditu:

- Gradu amaierako lana.
- Ikastegiaren izena.
- UPV/EHUren logotipoa.
- Lanaren izenburua.
- Ikaslearen izen-deiturak.
- Lanaren zuzendariaren izen-deiturak.
- Defentsarako deialdia.

4.5. Bibliografia, erreferentziak, zitak: APA arauak jarraituko dira (ikus EHU/UPVko Liburutegiko azken bertsioa <https://www.ehu.es/ehusfera/biblioteka/2020/03/30/gral/>): "Gradu Amaierako Lanak egiteko prestakuntza materialak" Orokorrean da interesgarria esteka hau GRALerako, material interesgarriak baitaude lan hau egiteko: katalogoan eta datu-baseetan informazioa nola bilatu, erreferentziak nola kudeatu eta aurkeztu..)

4.6. Plagioa <https://www.ehu.es/eu/web/biblioteka/plagioa-eta-onestasun-akademikoa>. Hemen ere ikusi EHU/UPVko Liburutegiaren "Gradu Amaierako Lanak egiteko prestakuntza materialak" <https://www.ehu.es/ehusfera/biblioteka/2020/03/30/gral/>

4.7. Gure Fakultateak EKOSKAN Ingurumena Hobetzeko Planean parte hartzen duela kontutan hartuz, GRALak emateko garaian kontutan hartu beharko lirateke:

- Paper zuriaren ordez paper birziklatua eta klororik gabea erabiltzea.
- Bi aldeetatik eta zuri beltzean inprimatzeko aukera lehenestea.
- Plastikoaren erabilera ahalik eta gehien murriztea.

4.8. Unibertsitateko irakaskuntzen antolamendua eta haien kalitatea bermatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak ezarritako ikasketa planak diseinatzeko printzipio gidariak garatuz, gradu amaierako lan guztietan jasoko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoei eta garapen jasangarrirako helburuei jarraituz egina. Gogoeta horrek aztertuko du GRALak balio horiekin eta JGHek osatzen duten lan esparruarekin duen lotura, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoak planteatu ditzake. Gogoetak arreta berezia jarri ahal izango die honako hauei:

- Giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoena ere.
- Genero berdintasunaren eta tratu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorri nazional edo etnikoa, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.
- Jasangarritasuna eta aldaketa klimatikoa tratatzeko era.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienik, eta atal espezifiko bat izango da lan idatzian. 822/2021 EDn aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, 2030 EHUagenda erabili ahal izango da gure

unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifikoko gisa.

Gainera, ikasleak lanaren erreferentziazko GJHak adieraziko ditu, unibertsitateak edo ikastegiak antolatuko dituen sistemen bidez.

9. Aspektu etikoak

GRALak 2024ko otsailaren 7ko Ebazpenaren araudiaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira. Hementxe eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2024001702>

Halaber, ikasleak eta bere zuzendariak 4. eranskina bete beharko dute.

■ 5. GRALa EGITEKO ETA ZUZENTZEKO PROZESUA

1. GRALaren zuzendaria izango da graduan eskolak ematen dituen irakaslea edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoa.

2. GRALak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.

3. Unibertsitateari lotutako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta zuzendarikide bat badago, graduan eskolak ematen dituen sailen batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoa.

4. Ikasleak GRAL osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den erakunde baten egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, GRALa unibertsitateaz kanpoko pertsonen zuzendu ahalko dute zuzendarikide gisa. Kasu horretan beste zuzendarikideak bete beharko ditu aurreko ataleko baldintzak.

5. Sail bakoitzak erabakiko du bere irakasleek zuzenduko duten GRAL kopurua, beti ere sailari dagozkion GRALen gehieneko kopuruaren barruan.

6. GRALaren zuzendariak ikaslearekin egin beharreko lanean izango dituen eginkizunak ondoren zehazten diren elkarren segidako faseetan zehaztuko dira:

Aurretiko fasea: Fase honetan egin beharreko lanaren berri emango zaie ikasleei eta fasea bukatuko da, adjudikazio prozesuak amaituta, halakorik balegokio, beharrezkoak diren agiriak sinatu eta aurkezten direnean “gradu amaierako lanaren gaiaren definizioan” (1. eranskina) adierazi bezala. Agiri horiek aurkeztean erabat finkatuta geratuko da irakasle eta ikaslearen arteko lankidetzak.

Gauzatze fasea: Fase honetan ikasle bakoitzari orientazioa emango zaio eta lana egiteko prozesuaren jarraipena egingo da, lana egiteko egutegia betez eta betearaziz. Horretarako, zuzendariak eta ikasleak hiru tutoretza izan beharko dituzte gutxienez. Fase hau amaituko da ikasleak Gradu Amaierako Lana ematen dionean zuzendariari.

Itxiera fasea: Zuzendariak, ikasleari, lana defendatu aurretik txostena idatziko dio (2. Eranskina) eta GRALaren dokumentua igorriko die epaimahaiko kideei, honetarako ezarriko diren epeetan.

■ 6. LANAREN DEFENTSA EGITEKO BALDINTZAK

1. GRALa tituluari loturiko gaitasunak ebaluatzerara orientatuko da eta banaka egin beharko da. Idatzitako GRALa 30 eta 50 orrien arteko luze izango da eta ahozko defentsa publikoa izango da, 15 minututako iraupenez.

2. Aipatutako lanak behin eginda eta epeak agortuta, GRALa defendatu behar da. Publikoa eta epaimahaiaren aurrean egin beharreko defentsa egin ahal izateko, ikasleak aurretik baldintza batzuk bete behar ditu, horietako batzuk zehaztu dira dagoeneko, eta, laburbilduta, honako hauek dira:

a) Gaingitua izatea Gizarte Hezkuntzako ikasketa planeko gainontzeko irakasgaietako kreditu guztiak. GRALa aurkeztu ahal izateko, ikasleak “Gradu Amaierako Lana” irakasgaien matrikulatuta egon behar du, hots, egiaztatuta egongo da lana aurkeztu aurretik ikasketa planeko gainerako irakasgaiak gaingituta dituela.

b) Zuzendariaren txostena izatea (2. Eranskina).

c) Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak EHUKo ADDI Artxibo Digitala erabiliko du GRALak gordailura igotzeko. Ikasleak matrikula eta defentsa eskaera burutuko du, ondoren, zuzendariak (GAURren) ikaslearen ebaluazio-txostena igoko du (2. Eranskina). Hau egin dagoenean, lana ADDIra igotzeko mezu bat jasoko du ikasleak. Behin ikasleak azken urrats hori emanda, eta zuzendariak lana balidatuta ADDIn, GRALa depositu ofizialean geldituko da: epaimahaikideek ikusgai izango dute defentsa gertatu baino lehen.

3. Ezin izango da gradu amaierako lanaren defentsa egin hiru baldintza horiek bete gabe.

■ 7. EPAIMAHAIIA

1. GRAL bakoitza lan horiek ebaluatzeko eraturako epaimahai batek ebaluatuko du.
2. Epaimahaiak eratuko dira Ikastegiko Batzarrak, edo, hala dagokionean, Gradu Amaierako Lanen Batzordeak ezarritako moduan, matrikulatutako ikasle kopurua eta egin diren GRALen gaiak kontuan hartuta. Titulazioko irakasle guztiei epaimahaietan parte hartzeko bidea emango zaie.
3. Epaimahai bakoitza hiru kidek osatuko dute, denak ere graduko titulua irakasten den ikastegiko irakasleak.
4. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira. GRALeko zuzendaria izango da epaimahaiko burua.

■ 8. GRALaren AURKEZPEN ETA DEFENTSA

- 1.- Epaimahaiko kideak behin izendatuta, ikasleak lana aurkeztu eta defendatu beharko du.
- 2.- Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du GRALa. Defentsa hauek modu askotara izan daitezke, beti ere ikasle zein zuzendariak egin ditzakeen proposamenaren arabera.
- 3.- GRALaren defentsa jendaurrean egingo da.
- 4.- Lanaren defentsa graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin ahalko da.
- 5.- Ikasleak behar dituen ikus-entzunezko baliabideak izango ditu eskura.
- 6.- Ikasleak, gehienez, 15 minutu izango ditu ahozko defentsarako eta GRALaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu tarte honetan.
- 7.- Azalpena behin amaituta, epaimahaiak, proiektuaren kalitatea epaitu aldera, 15 minutu izango ditu GRALari buruz eztabaidatu eta lanari buruzko galderak egin eta argibideak eskatzeko.
- 8.- Ondoren, epaimahaiak GRALa ebaluatzeari ekingo dio, isilpean.

■ 9. GRALaren EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

1. Kalifikazioaren arduradunak izango dira epaimahaieko kideak. Kalifikazioa honako alderdi hauei lotuko zaie:
 - a) Lan prozesuari buruzko zuzendariaren balorazioa (kalifikazioaren %15).
 - b) Emaizta, epahaimaieko hiru irakasleek baloratuko dutena, hiruen artean batezbestekoa eginez (% 65).
 - c) Ahozko aurkezpena eta defentsa, epahaimaieko hiru irakasleek baloratuko dutena, hiruen artean batezbestekoa eginez (% 20).

Ikusi Ebaluazio Errubrika (3. Eranskina).

- Defentsaren ostean, epaimahaiko idazkariak kalifikazioen akta beteko du. Akta hori epaimahaiko hiru kideek sinatuko dute eta ohiko bideak erabiliz egin eta argitaratuko da.
- Ikasleak gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere bidaliko zaio txostenaren kopia bat.
- Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta letraz ere adieraziko da:

Deialdi batean lana aurkezteko eskubideari uko eginez gero, Ez Aurkeztua adierazi beharko da.

- GRALen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arauari jarraiki egingo dira, baina ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta ondoren ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.
- GRALeko kalifikazioak defentsa egin eta hilabetea iragan aurretik pasako dira aktara. Nolanahi ere, GRALaren kalifikazioa urriaren 31 baino lehen agertu beharko da lanean matrikulatutako ikaslearen espedientean.

■ 10. EPAIMAHAI AKERATZEKO DEIA

Hiru deialdi izango dira ikasturtean zehar:

- Lehenengo lauhilekoa bukatzerakoan (otsaila).
- Bigarren lauhilekoa bukatzerakoan (ekaina).
- Ondorengo ikasturte hasieran (iraila, ohiko deialdian aurkeztu ez diren edo gainditu ez dutenentzat).

■ 11. GRALen ARTXIBO ETA KONTSULTA

- GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legearen babespean dago. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea da, eta hark ezin izango dio eskubide hori inori laga lana epaimahaiaren aurrean defendatu eta GRALaren behin betiko kalifikazioa lortu arte.
- Ikastegiak euskarri informatikoan artxibatuko du lana.

■ 12. KRONOGRAMAK

2024-2025 EGUTEGI OROKORRAREN LABURPENA

EGUTEGIA	EPEAK ETA EGINKIZUNAK
2024/2025 ikasturteko urrian	Gaien zerrenda argitaratzea Fakultateko web orrian
2024 urriak 31ra arte	Gradua amaitzeko GRAL lana bakarrik dutenek (praktikuma eta beste ikasgai gutziak aurreko kurtsoetan gainditu dituztelako), matrikula egiteko epea.
2024 urriak 7-13	GAURen sartu eta izena ematea (gaiak-zuzendariak aukeratzea).
2024 urriak 14-17	Behin behineko esleipenak
2024 urriak 21-24	Behin behineko esleipenari alegazioak
2024 urriak 25	Behin betiko esleipena
2024 abenduak 20	“GRALaren deskribapena” dokumentua aurkeztea (1. eranskina). Ikaslea eta zuzendariaren arteko hitzarmena.
2025 ekainak 16-17	Matrikula eta defentsa eskaera GAUR plataformaren bidez egitea; https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gizarte-hezkuntzako-gradu-amaierako-lanaren-matrikula . Ostean, zuzendariak bere oniritzia eman beharko du eta zuzendariren txostena (2. eranskina) igo beharko du.

2025 ekainak 18-19	Lanaren bertsio digitala ADDIra igo.
2025 ekainak 26-27	GRALaren aurkezpena-defentsa

2024-2025eko otsaileko deialdian aurkeztuko direnentzako egutegia

EGUTEGIA	EPEAK ETA EGINKIZUNAK
2025 otsailak 10	Matrikula eta defentsa eskaera GAUR plataformaren bidez egitea; https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gizarte-hezkuntzako-gradu-amaierako-lanaren-matrikula . Ostean, zuzendariak bere oniritzia eman beharko du eta zuzendariren txostena (2. eranskina) igo beharko du.
2025 otsailak 12	Lanaren bertsio digitala ADDIra igo.
2025 otsailak 20-21	GRALaren aurkezpena-defentsa

2022-23ko iraileko deialdian aurkeztuko direnentzako egutegia

EGUTEGIA	EPEAK ETA EGINKIZUNAK
2025 irailak 15-16	Matrikula eta defentsa eskaera GAUR plataformaren bidez egitea; https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/gizarte-hezkuntzako-gradu-amaierako-lanaren-matrikula . Ostean, zuzendariak bere oniritzia eman beharko du eta zuzendariren txostena (2. eranskina) igo beharko du.
2025 irailak 18-19	Lanaren bertsio digitala ADDIra igo.
2025 urriak 2-3	GRALaren aurkezpena-defentsa

13.2 GIZARTE HEZKUNTZAREN GRALerako KRONOGRAMA

	Iraila	Urria	Aza.	Abe.	Urt.	Ots.	Mart.	Apr.	Mai.	Ekai.
1. Gaien zerrenda argitaratzea eta matrikulatzea		X								
2. GRAL bakarrik duten ikasleak matrikulatzea	x	X								
3. GRALerako gaia-zuzendaria GAUR bidez eskatzea		x								
4. Behin betiko esleipena		X								
5. "GRALaren deskribapena" dokumentua aurkeztea				X						
7. Lana egin eta tutorizazioa					x	x	x	x	x	
8. Zuzendariaren txostena, lana aurkeztu eta defendatzeko										x
9. GRAL ematea										x
10. GRAL DEFENTSA										x



**1. ERANSKINA – GRADU AMIERAKO LANAREN DESKRIBAPENA
(IKASLE ETA ZUZENDARIAREN ARTEKO KONTRATUA)**

Izen-deituak:

NAN:

Zuzendaria :

BEHIN-BEHINEKO TITULUA:

LABURPENA (GEHIENERA, 15 LERRO):

ADOSTASUNA

Ikaslearen sinadura

Zuzendariaren sinadura

Donostian, 20 (e)ko _____ren _____(e)an / San Sebastián a _____de _____de 20

2. ERANSKINA- GRALa DEFENDATZEKO ZUZENDARIAREN TXOSTENA
INFORME DEL DIRECTOR/A PARA LA DEFENSA DEL TFG.

Ikaslearen izen-deiturak / Nombre y Apellidos del alumno/a:

NAN / DNI:

Zuzendaria / Director/a:

GRALeko TITULUA / TITULO TFG

ZUZENDARIAREN TXOSTENA/INFORME DEL DIRECTOR/A

Data eta sinadura / Fecha y firma:

Donostia, 20 ko

1. ERANSKINA: GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADU AMAIERAKO LANAK EBALUATZEKO TAULA (2024-2025)							
ATALAK		IKASKUNTZA EMAITZAK	1	2	3	4	
Prozesua (zuzendariak bakarrik baloratu beharrekoa) 1.5 puntu		Zeregina autonomiaz egiteko gai izan danorberaren kudeaketa eta erregulazio teknikak erabilia.					
		Kritikak modu eraikitzaile batean onartu ditu, hobetzeko aukerak baloratuz eta bere jardunean txertatuz.					
		Ikaskuntzarekiko jarrera arduratsua eta malgua azaldu du, sortutako egoerara egokituz eta hura arrakastaz konponduz.					
		Tutorearekin negoziatutako egutegia errespetatu du.					
		Iturri zientifikoetako informazioa iragazi edo filtratu du (bai Internet eta baita paperean inprimatutako liburu, aldizkari eta dokumentuak), bilaketa irizpideekin eta zereginen planteatutako helburuekin bat etorrira.					
		Aldez aurretik ezarritako helburuak lortzeko bete beharreko lanerako plana sistematikoki diseinatu du.					
		ZUZENDARIAK PROZESUARI EMANIKO KALIFIKAZIOA					
Emaitza (epaimahaikide guziek baloratu beharrekoa) 6.5. puntu GRALaren kalifikazio osoaren %65	Graduarekiko egokiera eta pertinentzia	Lana Gizarte Hezkuntzako Graduan dago kokatua, modu argumentatuan.					
		Graduko ezagutzak integratu ditu lanean modu koherente eta esanguratsuan.					
		Koherentzia laneko atal ezberdinen artean (helburuak, marko teorikoa, metodologia, emaitzak, esku-hartzea, bestelako sormen-berrikuntza proposamena, ondorioak...).					
	Oinarritzatze teorikoa	Egoki erabili du hainbat inguruetan (bai Internet eta baita paperean inprimatutako liburu, aldizkari eta dokumentuak) eskuratutako informazioa, haren fidagarritasuna eta garrantzi zientifikoa oinarri hartuta.					
		Gizarte Hezkuntzan egokiak eta esanguratsuak diren iturri bibliografikoak erabili ditu.					
		Erreferentzia aktualizatuak erabili ditu.					
		Informazioa interpretatu du, haren egokitasuna eta irismena ikuspegi kritiko batez baloratuta.					
	Metodologia, emaitzak, ondorioak	Sakontasunez garatu ditu atal eta azpiatalak.					
		Helburuak modu argian adierazi ditu.					
		Ikerketa ereduaren diseinu egokia egin du, "metodoa, informazioa biltzeko teknikak eta instrumentuak, parte hartzaileak..." atalak zorrotzasunez landuaz.					
		Esku-hartzea edo baliabide diseinuen ereduaren egoki esplikatu ditu printzipioak, plangintza, diseinua, ebaluazioa (kontrastea), etab.					
		Lanaren emaitzak zorrotzasunez eta argi ematen ditu.					
	Berrikuntza eta originalitatea; etika eta erantzukizun profesionala	Ondorio koherenteak atera ditu, argumentatuz, lanaren erabilgarritasuna, mugak, ekarpenak eta etorkizunerako garapen posibleak aipatuaz.					
		Egoera edo arazo baten aurrean, konponbide berritzaileak sormenez proposatzen ditu					
		Arlo profesionalari lotutako berrikuntza proiektu bat diseinatu du, planteatutako beharrei eta eskaerei erantzunez					
		Konfidentziasunez gorde ditu lanaren idazkuntzan eta harreman testuingurutan erabili dituen datu akademikoak eta profesionalak					
		Burututako lanean eraginaduten balio etiko propioak adierazi ditu					
		Lanbidearen printzipio etikoekin bat datozen erabakiak hartu ditu, kode deontologikoa errespetatuz					
	Adierazpen idatzia	Dokumentazio pertsonalari, plagioari eta jabego intelektuari lotuta dauden alderdi etikoak aintzat hartu ditu					
		Lanbidea hobetzeko proposamen indibidualak edota kolektiboak egin ditu					
		Arau ortografikoak eta gramatikalak errespetatu ditu, testu akademikoari loturiko estiloa erabiliz.					
		Idatzizko komunikazio espezializatuan egiturak eta arauak erabili ditu (dagokion terminologia zientifikoa, adierazpen egitura jantzia, zorrotzasun linguistikoa).					
			Bibliografiaren erreferentzia eta aipamen arauak bete ditu, APA arauak jarraituz.				

		Ideiak eta argudioak era ulergarrian komunikatu ditu, ezarritako irizpide formalekin bat etorrira				
		Euskararen edota gaztelaniaren erabilera inklusiboa egin du				
		EMAITZARI EMANIKO KALIFIKAZIOA				
Ahozko aurkezpena (epaimahaikide guzietan baloratu beharrekoa) 2 puntu		Ideiak eraginkortasunez adierazi ditu, hitzezko eta ez-hitzezko hizkuntzaren arteko koherentziari eutsita				
		Hitzezko eta ez-hitzezko adierazpena entzuleriari egokitzeko gai izan da (begirada, bolumena, tonua, gorputz-adierazpena, keinuak, hitz betegarriak ez erabiltzea...).				
		Euskararen edota gaztelaniaren erabilera inklusiboa egin du				
		Testuinguruaren beharren baitan kudeatu ditu denbora eta erritmoa				
		Euskara eta/edo gaztelaniaren erabilera testuinguru akademiko eta/edo profesionalera egokitu du				
		Epaimahaikideek egindako galderari egoki erantzun die argumentatzeko gaitasuna adieraziz.				
		Laguntza euskarriak eta materialak erabili ditu, informazioa hobeto ulertu ahal izateko.				
		AHOZKO AURKEZPENARI EMANIKO KALIFIKAZIOA				
Proposatzen den kalifikazio OSOA						

1: Desegokia-Gutxi (0-4)

2: Oinarrikoa-Nahikoa (5-6)

3: Oso Ongi (7-8)

4: Bikaina (9-10)

4. ERANSKINA GRAL ETA MAL-ek DAKARTZATEN INPLIKAZIO ETIKOAK AITORTZEKO ADIERAZPENA

GRAL ETA MAL-ek DAKARTZATEN INPLIKAZIO ETIKOAK AITORTZEKO ADIERAZPENA

Behean sinatzen dutenek (ikasleak eta tutoreak) adierazten dute honako alderdi hauek egiazkoak direla:

Ikaslearen izen-abizenak	
Ikaslearen posta elektronikoa	
Tutorearen izen-abizenak	
Tutorearen posta elektronikoa	
Proiektuaren izenburua: <input type="checkbox"/> GRAL <input type="checkbox"/> MAL	
Proiektuaren laburpen laburra (gehienez 150 hitz)	
Saila:	
Ikastetxea:	
Graduaren edo masterraren izena	

Planteatutako lanak barnebiltzen du (markatu dagokiona):

- Gizakien behaketa
 - Inkesta, elkarrizketa, eztabaida-talde eta abarren bidez datu pertsonalak lortzea.
 - Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak
 - Beste jarduera mota batzuk pertsonekin edo kolektiboekin (zehaztu)
-
- Aurreko ezer ez (zehaztu)
-

Adierazitako aukeretako bat edo batzuk badaude, behean sinatzen dutenek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Parte hartzen duten pertsona guztien baimen informatua jasotzea. Horretarako, honako betebeharrak hartzen ditugu gure gain: a) azterketaren izaerari eta horrek ekar ditzakeen onurei buruzko informazioa modu ulergarrian ematea; b) eskatutako parte-hartze mota eta emaitzei emango zaien erabilera akademikoa zehaztea; c) azterketak sor ditzakeen eragozpenak edo arriskuak zehaztea; d) azterlanean ez parte hartzeko edo haren baimena edozein unetan ezeztatzeko eskubidea dutela argi uztea, zenbait kalte edo diskriminaziorik eragin gabe; e)

lortutako datuei eta horiek lortzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dutela

adieraztea, hala nahi izanez gero.

Parte-hartzaileen anonimotasuna bermatzea, haien nortasuna babesteko eta jendaurrean agertzearen ondoriozko arriskurik ez izateko.

Datuen konfidentzialtasuna bermatzea. Horrek barne hartzen du egiletza ez jakinarazteko konpromisoa, parte-hartzaileen segurtasunaren mesedetan, eta informazio hori Datu Pertsonalen Babesari buruz indarrean dagoen legediaren arabera erabiltzekoa. Argitaratzean parte-hartzailea aipatu behar bada, haren baimena beharko da.

Aurreko puntuetan adierazitakoari dagokionez, arreta handiz jokatzeko azterlaneko parte-hartzaileak adingabeak direnean edo, oro har, edozein kolektibo kalteberetako pertsonak direnean.

Datuak babesteari buruzko legeria ezagutzea eta betetzea. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko; 2016/680 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa.

_____en, 201_(e)ko_____aren_____ (e)an

Sin.: Tutorea

Sin: Ikaslea